



AITOR  
ZEBERIO  
ETXANIZ

## IRONIA ULERTZEN

Tutorea: Fernando García Murga

Saila: Semantika eta Pragmatika

Gradua: Euskal Ikasketak

Data: 2015-09-08



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*The supreme irony of life is that hardly anyone gets out of it alive.*

-Robert A. Heinlein-

## LABURPENA

Idatzi honen helburua *ironia* deituriko fenomenoaz azaltzea da. Fenomeno hau gizakia gizaki denetik erabili dela esan genezake. Baina, horrela izanik ere, ez da batere erraza hizkuntzaren ezaugarri hau sakonean azaltzea. Helburu hau burutzeko, lana sarrera baten bitartez hasiko da, non adibide baten bitartez gaia aurkeztuko den, eta lehenengo definizioa emango da. Hala ere, laster ikusiko da dirudiena baino fenomeno konplexuagoa dela ironia, eta definizio sinple baten bitartez ezin da elementu hau bere osotasunean ulertu. Horregatik, hurrengo atalean Mueckeren (1969) eskutik fenomenoaren ezaugarri ezberdinak azalduko dira, eta, ondoren, zenbait ironia mota aipatuko dira, nahiz eta irizpide ugari dauden ironia mota ezberdinak sailkatzeko. Honen ostean, ironia historian zehar nola aldatu den deskribatuko da, ironia ulertzen zen modutik hasi eta honen erabilera ezberdinetara iritsi arte. Horretarako, hainbat autore ezberdinen iritziak batuko dira, Aristofanes, Platon edo Zizeron tartean direla, besteak beste, eta greziar adibideez gain beste zenbait garaitaz ere hitz egingo da. Zenbait kasutan, antzinako testuetan aurki daitekeen ironiaren adibide bat ikusgarri egongo da. Ironiaren aldaera historikoak azaldukoan, gaur egun onartuenak diren hiru teoria nagusiak azalduko dira, zeinek gaur egungo ironiaren mekanismo linguistikoak azaltzen dituzten ikuspegi ezberdinetatik: Griceko Kooperazio printzipioa eta maximak, Sperber eta Wilsonen Errelebantzia teoria eta Clark eta Gerrigen Pretentsio teoria. Bakoitza indibidualki azalduko da, adibideez horniturik azalpena ulergarriagoa izan dadin, eta bakoitzaren puntu ahulak ere mintzagai izango dira, lan honen helburua ez baita teoria bat onestea edo hauek elkarrekin kontrajartzea. Azkenik, lan honi bukaera emanaz, ironiaren inguruko zenbait ondorio deskribatuko dira, eta hausnarketa moduko bat egin ere bai Alde batetik ironiak historian zehar izan duen paperaz mintzatuko da, umorearekin duen erlazioa azpimarratuz, eta baita gaur egungo egoeraz ere. Etorkizunera begira, berriz, gai honen inguruan egin litezkeen lanen inguruan ere ideiak proposatuko dira, nondik litzatekeen posible enfokatzeko eta zeintzuk liratekeen jorrazteko bide berriak.

***Hitz gakoak:*** ironia, maximak, inplikatura, testuingurua.

# AURKIBIDEA

<b>Laburpena</b> .....	ii
<b>Sarrera</b> .....	4
<b>1. Ironiaren ezaugarriak</b> .....	6
<b>2. Ironia motak</b> .....	9
<b>3. Ironia historian zehar</b> .....	10
<b>4. Ironia teoria pragmatikoetan</b> .....	15
<b>4.1. Grice</b> .....	15
4.1.1. Kooperazio Printzipioa eta maximak .....	16
4.1.2. Aspektu ahulak.....	19
<b>4.2. Sperber &amp; Wilson</b> .....	21
4.2.1. Aspektu ahulak.....	24
<b>4.3. Clark &amp; Gerrig</b> .....	25
4.3.1. Aspektu ahulak.....	27
<b>5. Hausnarketa</b> .....	28
<b>6. Bibliografia</b> .....	31

## SARRERA

Demagun lagun baten zain zaudela. Esandako orduan iristean hau esaten diozu:

(1) - Garaiz iritsi zara.

Hurrengo egunean, egoera berdinean, lagun berdina benetan berandu iristen da, eta hurrena diozu:

(2) - Garaiz iritsi zara.

Pentsa genezake bigarren adibidea dela ironikoa, argi eta garbi ari baikara bere puntualtasun ezari buruz iseka egiten, lehenengoan benetan gertatu den zerbaiti buruz informazio objektiboa eman dugun bitartean, hau da, garaiz iritsi dela. Baina ez al da posible lehenengo adibidea ere ironikoa izatea, suposatzen badugu gure lagun hau beti iristen dela berandu eta ironikoki esan nahi diogula harritu egin gaituela behingoagatik bada ere esandako ordurako iritsi dela, eta bide batez, inpuntuala dela esan nahi badiogu? Beraz, elementu erabakigarri bat sartu beharko litzateke ironia ulertu ahal izateko, testuingurua. Izan ere, orain aipatutako adibideak ironikoki ulertu ahal izateko testuingurua beharrezkoa da, bere horretan irakurriz gero ezinezkoa baita irakurketa ironikora iristea. Kasu honetan, ez dago ezberdintasun gramatikalik bi irakurketen artean, ironikoa eta ez ironikoa, elkarrizketa erreal batean intonazioa lagungarri den arren. Idazle honek, testuingurua Hymesen (1974) *setting* eta *scene* terminoen elkarketa bezala ulertzen du. *Setting*-ek hizketaren momentu eta lekuari egiten dio erreferentzia, bereziki hizketa gauzatzen den egoera fisikoei. *Scene*-k, aldiz, hizketa inguratzen duen aspektu psikologiko edo kulturaleri egiten dio erreferentzia. Ondorioz, alde batetik esan liteke testuinguruak errealitate historikoa daukala eta, bestetik, hiztunek munduari buruz duten informazioa biltzen duela.

Testuinguruak, ordea, mota askotakoak izan daitezke. Crusek (2011) ondorengo testuinguru ezberdinak deskribatzen ditu:

- Testuinguru linguistikoa: diskurtsoko aurreko proposizioak eta hitzaren inguruko elementuak proposizio berean.

- Testuinguru fisikoa: interakzio linguistikoaren parte hartzaileek ikus, entzun edo sentitu dezaketen elementuak.
- Testuinguru kognitiboa: hizlariaren ezagutza eta esperientzien multzoa. Elementu hauek eragin handia izan dezakete mezuak interpretatzeko orduan.
- Diskurtso motak: testu mota, egoera (formala edo informala) eta diskurtsoa ematen den arloa.
- Parte hartzaileen arteko erlazioa.

Bestalde, nahiz eta eguneroko bizitzan maiz erabiltzen dugun, ironia uste baino fenomeno zabalagoa eta sakonagoa da. Etimologikoki hitz eginez gero, ironia grekozko “*eironeia*” hitzetik dator, nahiz eta fenomeno bera askoz zaharragoa den, Mueckek (1970) berak azaltzen digun bezala *Beowulf* bezalako antzinako lanetan jada aurki baititzakegu adibideak. Adibide hau bera, beste hainbat aipamenekin batera, jarraian datorren *Ironia historian zehar* atalean landuko dira.

“Eironeia” hitza lehen aldiz Plautoren *Errepublika* lanean azaldu zen arren, adiera ezberdinak zeuzkan garaiko autorearen iritziaren arabera, eta urrun oraindik gaur eguneko adiera modernoarekin konparatzen badugu. Ingelesari dagokionez, berriz, Mueckek (1970) dioenaren arabera “ironia” hitza ez da 1502ra arte azaltzen ingelesean. Mendek igaro ahala, sinonimo gehiago sortu ziren, eta hitza ez zen orokortu 18. mende hasiera arte. Definizioari dagokionez, horrela definitzen zuten: **esaten denaren aurkakoa komunikatzen duen hizketa figura**. Beraz, argi dago ironia erabiltzerakoan mezua eta mezua oinarritzen den espresioaren esanahiak aurkako informazioa dutela, eta hau dela ironiaren mamia. Definizio hau da, gutxi gora behera, orain arte mantendu dena. Izan ere, badaude beste zenbait komunikazio inplizitu, esate baterako, inplikaturak, non esandakoaren eta esan nahi den artean, ez dagoen kontraesanik:

(3) Gosaldu al duzu?

- a) Gero odol analisia egin behar didate.
- b) ++→Ez dut gosaldu.

Hala eta guztiz ere, ironia era teorikoan ulertzeko bere ezaugarriak deskribatzea beharrezkoa da.

Hori dela eta, lan honek lehendabizi ironiaren ezaugarriak deskribatuko ditu. Horren ostean, ironia historian zehar nola aldatu den aztertuko da. Ironiaren eboluzio diakronikoa azaldu ondoren, ironiaren erabileraren inguruko hiru teoria ezberdin aurkeztuko dira, eta, azkenik, lan honen bitartez sortutako ondorioak. Atal guzti hauen bitartez lanaren helburu nagusia betetzea lortzea espero da eta ironia ahal bezain sakon deskribatzea.

## **1. IRONIAREN EZAUGARRIAK:**

Mueckek (1969) bere *Compass of Irony* lanean funtsezko lau ezaugarri identifikatzen ditu.

- 1- Ironia bi mailako fenomeno bezala deskribatzen digu, behe maila, edota esanahi literala, eta goi maila, edo esanahi ironikoa. Behe mailako egoeran, mezua ironiaren helburu denari aurkezten zaion modukoa, edo kasu honetan ironistagileak, hizketa ironikoa darabilenak, aurkezten den modukoa da. Goi mailan, berriz, ironistagileari edo hirugarren pertsona bati agertzen zaiona izango litzateke. Maila hau ez dago zertan aurkeztu beharrik, iradoki baizik. Hots, inplizituki adieraziko da, isilean, eta hau da ironistagileak benetan helarazi nahi duen mezua.
- 2- Bi mailen artean nolabaiteko oposaketa bat egon behar da. Oposaketa honek forma ezberdinak izan ditzake: kontraesana, inkongruentzia edo bateraezintasuna.

- a. Kontraesana kontzeptu logikoa da. Bi proposizio, A eta B, kontraesanak dira baldin eta A&B nahitaez faltsua bada, hau da A eta B ezin dira aldi berean egiazkoak izan:

(4) Euria ari du.

(5) Ez du euria ari.

- b. Inkongruentzia/ Bateriaezintasuna

Berdinak ez diren arren, biak maila berean sailka ditzakegu, ideien esparrukoak baitira, logikakoak baino. Bi proposizio elkarrekiko bateraezinak dira, A egiazkoa denean, B (gauzak normalean ustez gertatzen diren bezala gertatzen badira) B faltsua da; halere, bada aukera logikoa B ere egiazkoa izateko:

(6) Bakezalea naiz.

(7) Armada indartu behar da.

Oposaketa ezberdinak egotea posible da, bai elementuen artean bai mailen artean. Mueckek bi ironia ezberdintzen ditu puntu honetan, “Simple Irony” edo ironia sinplea, non oposaketa mailen artean den soilik, eta “Double Irony” edo ironia bikoitza, non izenak dioskun bezala, oposaketa bikoitza dago: alde batetik beheko mailako bi elementuen artean, eta bestetik beheko eta goiko mailen artean.

Zehazkiago esanda, ironia sinplea, (2) adibidean aurki daitekeena, egiazkoa dirudien baieztapen bat edo gertagarria dirudien egoera bat ironistagileak esan nahi zuenagatik edo gertaerengatik zuzentzen edo ezeztatzen denean jazotzen da.

Ironia bikoitza, aldiz, haratago doa. Lehen aipatutako beheko mailako oposaketaz gain zentzu batean filosofikoagoa eta modernoagoa da. Filosofikoagoa sarri gaia bera giza naturaren kontraesanetan oinarritzen baita, eta modernoagoa aldi berean konszienteagoa delako, erantzunik gabea. Hau hobeto ulertzeko adibide on bat Mueckek berak darabil. Pontio Pilatos, jubilatua ondoren, lagun batekin hizketan dagoela, lagun honek gogorarazten dio nola



gurutziltzatu zuten Jesus 20 urte lehenago. Pontiok, zeinak arestian azpimarratu zuen bere memoriak ederki funtzionatzen zuela oraindik, honela erantzuten dio:

(8) “Jesus?... Nazareteko Jesus? Ez naiz oroitzen.”

Ironikoa da Pontiok Jesusen izena ahaztu izatea (8)-n, kontuan hartuta honen izenak egin duela berea horren ahaztezin, zeinen paradoxikoa den gertaera hau horren hutsala izatea Pilatosen begietan historiaren aldetik horren garrantzitsua den bitartean. Halaber, horren memoria ona edukita ironikoa litzateke ere Jesusen gurutzilketa horren errez ahaztekoa izatea, garaiko beste edozein gaizkileren gurutzilketa izan balitz bezala.

3- Biktimaren inozentzia elementu bat, non autoreak azaltzen digun bezala:

...either a victim is confidently unaware of the very possibility of there being an upper level or point of view that invalidates his own, or an ironist pretends not to be aware of it.

(Muecke, 1969, p. 20).

Hots, ironistagileak asmo onenarekin hitz egiten duen pertsonaren rola hartzen du, errugabea balitz bezala, eta biktimak berriz, ez badu goiko mailarik antzematen eta ironiagilearen intentzio onean sinesten badu, amua irentsiko du, bera ere inuzente bihurtuko delarik.

4- Biktima. Aurreko puntuarekin uztartuz, proposizio ironikoek biktima bat izan ohi dute. Biktima honen asmotaz ohartu ez den ironistagilearen helburua izango litzateke, edota hirugarren pertsona batek, nahiz eta ez izan ironistagilearen helburu, ez badu goiko mailarik antzematen automatikoki bere burua ironiaren biktima bihurtzen du.

Adibidez, demagun lagun batekin geratu zarela zortziak laurden gutxitan zortzietan pelikula bat ikusteko zinean. Zure lagunari ordularia geratu zaio eta ez da konturatu hogeit hamar minutuko atzerapenarekin abiatu dela. Iristean hurrena diozu:

(9) Eskerrak puntual iritsi zaren, pelikula galduko ote genuen beldur nintzen.

Kasu honetan ironistagileak (9) ironikoki esan duela argi dago, pelikula galdu baitute, baina gure lagunak ez dakienez berandu iritsi dela ez dakielako ordularia izurratu zaiola ez da iritsi ironia ulertzera, eta ondorioz, ironistagilearen biktima izan da.

## 2. IRONIA MOTAK:

*The New Princeton Encyclopedia of Poetri and Poetics* entziklopediaren arabera, hainbat ironia mota ezberdin ezagutzen dira, esate baterako: ironia klasikoa, ironia erromantikoa, ironia tragikoa, ironia kosmikoa, ahozko ironia, ironia dramatikoa eta ironia poetikoa:

- Ironia klasikoa: Antzinako Grezian ematen zen ironia komedietan. Hurrengo atalean garai honetako hainbat autore aurkeztuko dira.
- Ironia erromantikoa: narratzaileak ilusio bat sortzen du, baina, nahi duenean ilusio hori apurtzen du, aipatuz bera dela istorioa asmatzen ari dena. Mota honen adibide aipagarrienetariko bat Byronen *Don Juan* obran aurki daiteke, non, narratzaileak istorio guztian zehar istorio erreal bat kontatzen ari dela dioen, baina, memento batean istorioaren ideia txotxongilo saio bat ikusi ondoren bururatu zitzaizola aipatzen du.
- Ironia tragikoa: Connop Thirlwallek erabili zuen termino hau lehendabizi 1833. urtean, eta hiru ironia ezberdin batuz azaltzen zuen: ahozkoa, dialektikoa eta praktikoa.

- Ironia kosmikoa: jainko edo patuak errealitatea nahi bezala aldatzen duenean, istorioaren pertsonaia bat frustratzeko edo irrigarri uzteko.
- Ahozko ironia. Entziklopediak horrela definitzen du ironia mota hau:

one meaning is stated and a different, usually antithetical, meaning is intended. The [irony] of a statement often depends on context. If one looks out of his window at a rain storm and remarks to a friend, "Wonderful day, isn't it?" the contradiction between the facts and the implied description of them establishes the [irony]

- Ironia dramatikoa: ironia dramatikoa egon ahal izateko, ondorengo ezaugarriak dira beharrezkoak:
  - Ikusleek protagonista baino gehiago dakite.
  - Protagonistak egokia edo jakintsua ez den era batean jokatzeko du
  - Pertsonaiak edo egoerak konparatu egiten dira, efektu ironikoak lortuz, edota,
  - Aldi handia dago pertsonaiak ulertzen duenaren arabera eta obrak erakusten duenaren arabera.

Ironia hau Ediporen hurrengoko adibidean ikus daiteke: Why, I'd sooner marry my own mother than . . . “)

- Ironia poetikoa: poesietan erabilitako ironia.

### **3. IRONIA HISTORIAN ZEHAR**

Ruízek (2001), nahiz eta askok errelatibismo eta eszeptizismoaren ondorioz gure garaia “garai ironikoa” dela uste duten, ironia gizakia bera bezain zaharra delakoaren alde dago. Izan ere, bere aburuz, kontzeptua diakronikoki aldatu egin da, beraz, perspektiba ezberdinetatik uler daiteke. Hala eta guztiz ere, bere iritziz gaur egungo joerak, ironiari dagokienez, bai autore klasikoetan, bai historian zehar ikus daitezke, esate baterako, parte-hartzaileen rola edo ikuspuntuaren garrantzia.

Lan honek ironia Antzinako Grezia eta Erroman kokatuko du lehendabizi, garai honetan ironiaren lehendabiziko aztarnak ikus daitezkeelakoan baitago. Ruízen (2001) aburuz, ironia tragedia eta komedia greko askotan aurki daiteke. Ironiak garrantzia handia zuen garai honetan, Sokratesek, Platonek edo Aristotelesek ironia eta filosofiaren artean sortutako erlazioa dela eta.

- Aristofanes: Longek (2010) Aristofanesen testuetan ironiaren lehen aztarnak topa daitezkeela dio. Idazle greko honen *Liztorrak* (*Σφήκες*), *Txoriak* (*Ὀρνιθες*) eta *Lainoak* (*Νεφέλαι*) obretan ironia aurki daiteke, faltsutasuna edota iruzurra espresatzen.
- Platon: Longen (2010) aburuz, Platonen *Legeak* (*Νόμοι*) liburuan, autore honek ironistagileen heriotza iragartzen du, *Sofista Ironikoak*-en ironistagileak hipokrita eta sofista deitzen dituen bitartean, euren hizkeraren erabilera artea sortzeko erabiltzen baitzuten, benetako egia transmititzea bilatu beharrean.

Hala ere, Platonek ironiaren inguruan egindako ekarpen garrantzitsuenetarikoa, bere dialogoetan ikus daiteke, Sokratesen ikuspuntua azaltzen baita. Bertan, ironia disimulatu edo autoiraintzearekin lotzen da. Sokratesen ironia, pedagogiarekin lotzen ohi dela dio Longek (2010). Sokratesen iritziz, ironia erabiltzea hartzaileari galderak egitean datza. Galdera hauek antzeztutako xalotasunarekin egiten dira, baina ez hartzailea irrigarri uzteko nahian, hartzailea pentsaarazteko eta esnatzeko baizik.

- Ciceron. Ciceronek ironia modu ezberdinean ulertzen zuen. Bere iritziz ironiak ez du zertan esan nahi denaren kontrakoa esan nahi, askotan gauza baten ordeztu beste gauza bat esateko erabiltzen zela uste baitzuen. Idazle askoren iritziz, Muecke (1970) eta Long (2010) barne, Ciceronek Sokratesen ironiaren erabilera goraiapatzen zuen, baliabide estilistikotzat erabiltzen zuela uste baitzuen.

- Kintiliano: Longen (2010) aburuz, Kintilianok ironia umorearekin identifikatzen zuen, idazle honentzako ironia latzenena ere, txantxa bat baino ez zela uste baitzuen. Horrez gain, Mueckek (1970) Kintilianoren ironia definitu nahian, horrela deskribatzen du fenomenoak: “the elaboration of a figure of speech into an entire argument” (Muecke, 1970, p. 16).

Hala ere, beste zenbait autorek, Muecke (1970) barne, ironiaren aztarnak antzinagoko testuetan topatu izan dituzte. Mueckek (1970) berak, Homero aipatzen du lehendabizi. Horretarako idazle honen *Odisea* liburuko atal bat aipatzen du:

Odysseus now had the bow in his hands and was twisting it about, testing it this way and that, for fear that the words might have eaten into the horn in the long absence of his owner. the Suitors glanced at one another and gave vent to some typical comments: “Ha! Quite the expert, with a critic’s eye for bows! No doubt he collects them at home or wants to start a factory, judging by the way he twists it about, just as though he had learn something useful in this live on the road!”  
(Muecke, 1970, p. 14)

Hala ere, esan beharra dago, ironiaren adibideak ez direla soilik literatur grekolatinoan ikusten. Esate baterako, 700-1000 urteen artean idatzitako *Beowulf* liburuan ere, fenomeno hau aurki daiteke:

## 1. Taula: Ironia Beowulfen

Old English	Modern English
<p>Geféng þá be eaxle --nalas for faéhðe mearn— Gúð-Géata léod, Grendles módor· brægd þá beadwe heard þá hé gebolgen wæs feorhgeníðlan þæt héo on flet gebéah· héo him eft hraþe handlean forgeald grimman grápum ond him tógéanes féng· oferwearp þá wérigmód wigena strengest</p> <p>féþecempa þæt hé on fylle wearð· <b>ofsæt þá þone selegyst ond hyre seax getéah</b></p> <p>brád ond brúnecg· wolde hire bearn wrecan</p> <p>árgan eaferan· him on eaxle læg bréostnet bróden; þæt gebearh féore wið ord ond wið ecge ingang forstód.</p> <p>Hæfde ðá forsíðod sunu Ecgpéowes</p> <p>under gynne grund Géata cempa nemne him heaðobyrne helpe gefremede herenet hearde-- ond hálig god gewéold wígsigor· wítig drihten rodera raédend hit on ryht gescéd ýðelíce syþðan hé eft ástód.</p>	<p>Grabbed her then by the shoulder, not in the least regretting the feud the prince of the War-Geats, Grendel's mother; the hard man of conflict then heaved, now that he was enraged, the deadly foe, so that she fell to the floor; she again him quickly gave hand- reward with wrathful grips and clutched him against herself; then, weary in spirit, he stumbled, the strongest man, warrior on foot, so that he was in a fall; <b>then she bestrode the gest in her hall, and drew her seax,</b> broad and bright-edged; she wished to avenge her son, only offspring; on his shoulder lay woven breast-net; it protected life, against point and against edge it withstood entry. Then he would have perished, the son of Edgetheow, under the yawning ground, the champion of the Geats, except that him the war-byrnie provided help, firm army-net and holy God controlled the war-victory; the wise Lord, the Ruler of the heavens, decided it rightly easily, thereupon he stood up again.</p>

Berezko sorkuntza: *Beowulf*. <http://www.heorot.dk/beowulf-rede-text.html> web orrialdetik berreskuratua.

*Old Englishen* ezkerretan, eskubita gaur egungo ingelesez, idatzitako goiko aipamen honetan, Beowulf, istorio honen heroia, Grendel munstroaren ama hiltzeko intentzioarekin hurbiltzen da, azkeneko hau bizi den lakura. Grendelen amak, Beowulf “gonbidatu” deitzen du, bere intentzioen jabe den arren.

Hala eta guztiz ere, Mueckek (1970) dioenaren arabera, aipatutako bi kasu hauetan ironiaren fenomenoak aurki dezakegu, baina, esan beharra dago, oraindik ez zegoela ironiaren kontzepturik. *Eironeia* hitza Platonen *Errepublika* liburuan lehendabizi agertu zela uste da, eta, testu honetan, “a smooth, low-down way of taking people in”.

Denboran aurrera eginez, ironia, Erdi Aro eta Errenazimentuan *yronia* edo *hyronia* idazten ohi zena, diskurtsoa edertzeko baliabidetzat zuten garaiko autoreek. Idazle askok, esate baterako, Knoxek (1989) aipatzen dituen Papias, Ugucione da Pisa eta Balbus, aipatutako zenbait autorerekin bat eginez, ironia esan nahi denaren kontrakoa esateko erabili behar zela uste zuten.

Fenomeno hau ez zen soilik idatzietan aurkitzen, baita ahozko hizkuntzan ere. Horren adibide dugu Knoxek (1989) azaltzen duen kasua, non Veneziako biztanleek arraza txuriko jendea, edo *blanchi*, *negroes* deitzen zituzten.

Esan beharra dago ironia hitza ingelesez, *irony*, lehendabizi 1502. urtean agertu zen arren, 18. mendera arte ez zen genero literarioan orokorki erabiltzen, bai oster, lagunarteko elkarrizketetan. Izan ere, Mueckek (1970) garaiko hainbat hitz “ironia embrioniko-tzat” ditu: *fleer*, *flout*, *give*, *mock*... Hala ere, garaiko idatzietan aurki daiteke fenomeno honen adibideren bat, adibidez, Jonathan Swift idazlearen *A Letter to Stella* obran:

... met me last night at Ld Mashams, & thanked me for my company in a Jear because I had not dind with him in 3 days.

(Muecke, 1970, p. 17)

Garai honetan, ironia erabilera desberdinak zituen Mueckeren (1970, p. 17) iritziz:

- Esan nahi denaren kontrakoa esatea.
- Zeozer esatea, beste gauzaren bat esan nahian.
- Goraipatzea errua egozteko edo errua egotzi goraipatzeko.

- Iruzur edota barre egitea.
- Disimulatzeko edota parodiatzeko erabilia.

Hala ere, mendearen bukaerarako, esanahi berriak gehitu ziren, aurreko hauek ez galduz. Laburbiltzeko:

## 2. Taula: Ironia -XVIII vs. +XVIII

Lehen	Orain
Ironia era kontzientean erabiltzen den baliabidea da	Gerta liteke espontaneoki erabiltzea.
Ironia lekuko edo noizbehinkako fenomeno da.	Ironia orokortu daiteke.
Ironia bukaeradun eragiketa bat da.	Ironia betiko konpromisoa izan litzateke. (Izan ere, ironiagile idealak ez luke ironia inoiz alde batera utzi)

Berezko sorkuntza: Muecke, D.C. (1970). *Irony and the Ironic*. Londres: Methuen

Ironiaren kontzeptua garai honetan hainbat autorek aztertu zuten, famatuenak Friedrich Schlegel, August Wilhelm, Ludwig Tieck and Karl Solger direlarik. Dena den, lan honen helburua ez da momentu historiko bakoitzean nabarmendu diren ikuspuntuak zehatz-mehatz aztertzea, baizik eta, ironia historian zehar nola aldatu den aztertzea; hori dela eta, lan honek ez ditu autore hauek aztertuko. Hala ere, badirudienez, ironia errekurtsu linguistiko unibertsala da, garaiz garai era ezberdinetara ulertzen den arren.

Hurrengo atalean, gaur egungo ironiaren mekanismo linguistikoak azaltzen saiatzen diren hiru teoria ezberdin azalduko dira.

## 4. IRONIA TEORIA PRAGMATIKOETAN

### 4.1. GRICE

Gricek (1975) *Logic and conversation* artikuluan ordura arte hitz beraz deskribatzen ziren bi nozio banandu zituen: *implicate* aditzaren *implicature* edo



ondorioztatu logikoki eta *implicatum* edo pragmatikoki inplikatu. (10) eta (11) adibideetan ikus daiteke ezberdintasun hau:

- (10) A: Zer moduz doakio Errealari?  
(11) B: Ederto, oraindik ez dira bigarren mailara jaitsi.

Kasu honetan, A-k logikoki bi interpretazio ezberdin ondoriozta litzake. B Eibar zalea bada, literalki esan duela pentsatuko du A-k, kontuan hartuta Eibar Bigarren mailatik igotako taldea dela eta zaila duela Lehen mailan mantentzea lorpen handia deritzo Bigarren mailara ez jeistea. Aldiz, B Erreal zalea bada, A-k ironikoki interpretatuko du proposizioa, Errealak duen taldearekin ez lukeelako horren gaizki ibili behar. Motzean esanda, adibide honen bidez ikus daitekeena da zeinen garrantzitsua den testuingurua eta bakoitzak munduari buruz duen informazioa, Errealaren eta Eibarren egoerari buruz berririk eduki gabe A-k ezingo bailuke aukeratu interpretazio egokia.

Gricek komunikatzerako orduan, bi fenomeno ezberdintzen ditu, alde batetik, esandakoa eta, bestetik, inplikaturakoa. Esandakoa, perpausaren esanahi konbentzionalari dagokio. Hala ere, testuinguruak ere parte hartzen du fenomeno honetan. Bestalde, inplikaturakoari dagokionez, hainbat elementu hartu behar dira kontuan, esate baterako, esandakoa, Kooperazio Printzipioa eta maximak, testuinguru linguistiko eta estralinguistiko, bestelako informazioa eta aurreko guztiei buruzko ezagutza orokorra.

#### *4.1.1. KOOPERAZIO PRINTZIPIOA ETA MAXIMAK*

Gricek kooperazio printzipioarekin bat egiten duten zenbait maxima, eta azpimaxima sortu zituen, argumentatuz:

...our talk exchanges do not normally consist of a succession of disconnected remarks, and would not be rational if they did. They are characteristically, to some degree at least, cooperative efforts; and each participant recognizes in them, to some extent, a common purpose or set of purposes, or at least a mutually accepted direction.

(Grice, 1975, p. 45).

Hau esanik, kooperazio printzipioa honela definitu zuen: sortzen den egoeraren barruan, izan dadila zure hizketa behar bezalako, hitz trukaketaren norabidea edo helburua onartuz. Jarraian, 4 maxima deskribatu zituen.

- **Kantitatea:**

Bi azpimaxima:

1. Egin ezazu zure ekarpena behar bezain informatiboa.
2. Ez ezazu zure ekarpena behar baino informatiboagoa egin.

- **Kalitatea:**

Bi azpimaxima:

1. Ez ezazu esan gezurra dena uste duzuna.
2. Ez ezazu esan hori zeinarentzat ez duzun ebidentzia egokia.

- **Erlazioa:**

Maxima: Izan zaitez pertinente.

- **Modua:**

Supermaxima: Izan zaitez argia:

Azpimaximak:

1. Ekidin adierazpenen iluntasuna.
2. Ekidin anbiguotasuna.
3. Izan zaitez laburra.
4. Izan zaitez ordenatua.

**Maximak errespetatuz:**

Maximak zerrendatu ondoren, eta kontuan hartuta Kooperazio printzipioak zioena, hau da, biek alde zuzenetik elkar komunikatzeko duten hitzarmena beteko dutela, Gricek inplikaturen sorrera azaldu zuen. Inplikaturak bi modutara sor daitezke, bai

maximak errespetatzen direnean, baita maximak urratzen direnean ere. Har dezagun hurrengo adibidea.

- (12) a. Ane bizikletatik erori zen eta eskumuturra hautsi zitzaion  
b. ++> Ane bizikletatik erori zen eta gero / horren ondorioz eskumuturra hautsi zitzaion

(12) b-n diogun bezala, munduaz dugun ezagutzaren arabera badakigu eskumuturra haustea bizikletatik erortzearen ondorioa dela, eta beraz, bi ekintzak elkartuta doaz. Kasu honetan, modu maximaren 4. azpimaxima da betetzen dena, hau da, “izan zaitez ordenatua”, eta eskumuturra hautsi duela da atera dezakegun inplikatura, esan bezala ekintza baten ondorio izan baita gertatutakoa, eta ez alderantziz.

- (13) a. Anek ingeleseko azterketa eta alemaneko azterketa gainditu ditu  
b. +/+> --eta gero/ horren ondorioz..

Aldiz, (13) a-n azaltzen den egoerak ez du maximarik urratzen, baina ez da (12) kasuan bezala “izan zaitez ordenatua” azpimaxima aplikatzen. Izan ere, guk dugun munduaren ezagutza dela eta jakin badakigu alemaneko azterketa gainditzea ez dela izan ingeleseko azterketa gainditzearen ondorio izan, eta beraz, ekintzek beraien artean loturarik ez izateak hasieran aipatu bezala azpimaxima ez aplikatzea dakar kasu honetan.

### **Maximak urratuz:**

Maximak, ordea, urratuak izan daitezke. Gricek lau urraketa ezberdin zerrendatu zituen arren, ironiari dagokionez, laugarrena da guretzat garrantzia duena:

- 1- Maxima bortxatua izan daiteke, isilean eta nabarmendu gabe.
- 2- Maximaren eskaeratik kanpo geratzea erabaki lezake, maximak eskatzen duenarekin ez duela kooperatuko esanez edo adieraziz.
- 3- Bi maxima kontrajartzen badira, agian ez da gai izango horietako bat betetzeko.
- 4- Maxima ez betetzea erabaki lezake, argi eta garbi erakutsiz.

Ironiaren kasuan, kalitatearen maxima da bete gabe geratzen dena. Zure lagunarekin Errealaren partidua ikusten zaude, eta Errealeko aurrelariak beste behin ere gol aukera nabarmenetan huts egin du. Amaitu ondoren hau esaten diozu lagunari:

(13) Gaur ere Finnbogasonek sekulako partidua egin du, beti bezala.

Gricen maximeei erreparatuz gero, arestian aipatu bezala kalitatearen maxima urratzen da, hiztunak ez baitu egiazko ekarpen bat egiten, baina, gerta liteke, biktimak ez jakitea maxima bortxatu denik. Beraz, maxima urratu denez, entzuleak inplikatura bilatu beharko luke ondorengo eskema hau jarraituz:

#### ❖ **Elkarrizketako inplikatura**

$p$  esatean, hiztunak (H-k) konbertsazionalki  $q$  inplikatzeko du bbb:

- 1.- H-k, ustez, maximak (edo Kooperazio Hatsarrea bederen) errespetatu ditu
- 2.-  $q$  beharrezkoa da (1) baieztatu ahal izateko
- 3.- H-k uste du (eta uste du E(antzulea)-k uste duela H-k uste duela) E-k (2)-az jabetuko duela

#### 4.1.2. ASPEKTU AHULAK

Baina urteak igaro ahala, eztabaidagarriak diren zenbait puntu aipatu dituzte autore ezberdinek hainbat artikulu eta liburutan. Sperber & Wilsonen *On verbal irony* (1992) izeneko artikuluan Gricen ikuspegiaren zenbait ahultasun nabarmendu zituzten, esanez kontradibide askok erakusten zutela ideia batzuk ez zirela zuzenak. Demagun: Gizon bat denda batean sartzen da, dendariarengana joan eta oihuka hasten da kexatzen, sutan:

- (14) Haserre dagoela esan liteke.
- a) Ezin da esan haserre dagoela.
  - b) Ez dago haserre

Kasu honetan, hiztunak modu ironikoan esaten badu ere, ez du guztiz kontrakoa esaten, proposizio horretan haserre dagoela ulertu daiteke eta, baina ez da (14a) edo (14b). Beste modu batera esanda, badirudi muturreko fenomenoaz baino graduazio ezberdinez ari garela, hau da, egon litezkeen interpretazioak haserre “maila” ezberdinak izango lirateke, beraz, ez legoke kontraesanik, haserre “mailen” kontra-jartze edo konparaketa bat baizik.

Beraz, erdibide horretan geratzeak definizio klasikoa, ironia, esaten denaren kontrakoa esan nahi duen baliabidea dela dioena, eztabaidan uzten du.

Honez gain, perpaus ez deskriptiboak ere ez datoz bat Gricen ikuspuntuarekin. Lagun batek Errealaren futbol partidu bat ikustera gonbidatzen zaitu, munduko girorik onena dagoela zin eginez. Iritsi ondoren, zaleak erabat isil daudela ikusten duzu:

(15) Anoeta gau handitan!

Kasu honetan (15) ez da proposizio oso bat, beraz, ezin da ez egi ez gezur izan. Hori dela eta, ezin da esan kalitate maxima urratzen duenik. Gainera, ez dago argi zein litzatekeen (15)-ren aurkakoa.

Bestetik, Joana Garmendiak *Zer esan ironiaz* (2006) artikuluan Griceren paradoxaz dihardu. Paradoxa hau hobeto ulertzeko erabil dezagun adibide bat: Demagun lagun baten etxera zoazela bazkaltzera. Arroza prestatu du, baina konturatu gabe behar baino denbora gehiago utzi du sutan eta erre egin zaio. Dastatzeko apur bat eman ondoren, zer moduzkoa dagoen galderari hau erantzuten diozu:

(16) Oso ona atera zaizu.

(17) Ez zaizu oso ona atera.

Azalpena hurrengoa litzateke, (16) izan da esan edo baieztatu duzuna baina (17) inplikatu duzuna, beraz, kontraesan bat sortu da esandakoa (16) eta inplikaturakoaren (17) artean, guztiz aurkako esanahia baitute. Baina Grice-ren arabera, komunikatzen

dena ‘esandakoa eta inplikaturakoa’ denez, ironikoki hitz egiten duenak kontraesan bat komunikatuko luke, ‘euria ari edu eta ez du euria ari’ esango balu bezala.

Azkenik, esan ikuspegi tradizionalak ironiaren deskripzioa bakarrik ematen digula, zergatik sortzen den eta nola funtzionatzen duen azaldu gabe: “*we need to know not just what verbal irony is, but why it exists, how it works, and what is its appeal*” (Sperber & Wilson, 1992, p: 57)

## 4.2. SPERBER & WILSON

Sperber & Wilsonen ironiari buruzko teoria ulertzeko, 1981ean idatzi zuten artikulura jo behar da lehendabizi, non aurrenekoz ezberdindu zituzten *use* (erabilera) eta *mention* (aipamena): *...use of an expresion involves reference to what the expression refers to; mention of an expression involves refererence to the expression itself.*” (Sperber & Wilson, 1981, p. 303). Hau hobeto ulertzeko ikus ditzagun ondorengo adibideak, non entrenatzaile batek prentsaurrean esan ditzakeen bi esaldi aurkezten diren:

- (18) Lotsagarria izan da Errealaren gaurko partidua.
- (19) “Lotsagarria” da gaurko Errealaren partidua definitzeko hitz egokia.

(18) adibidean *lotsagarria* hitza partiduari erreferentzia egiteko erabili da, honen propietateren bat deskribatzeko. (19)-n *lotsagarria* hitzari berari egiten zaio erreferentzia, beraz kasu honetan aipamen bat da.

Bestalde, ironia azaldu ahal izateko, sistema kognitiboa aztertu behar dela diote Sperber eta Wilsonen. Puntu hau Sperber eta Wilsonen eta Griceen teorien arteko ezberdintasun nabarmenena da, izan ere, Gricek deskribatutako teoria, jokabide arrazionalarekin lotzen zuen maximen bitartez. Sperber eta Wilsonen, aldiz, sistema kognitiboa azaltzen digute. Esaldiaren interpretazioak informazio prozesaketara dakar. Informazio prozesaketek esfortzu mental handiak eskatzen dizkio gizakiari, eta eragin kognitiboak lortu behar ditu, hau da, entzulearentzat erreferentzia izan behar du.

Zehazkiago esanda, edozein eragin kognitibo positibo eragiten digun *inputa* errelebantea izango da.

Eragin kognitiboa ez da mezutik jasotzen, hizlariaren intentzioetatik baizik. Hori dela eta, Sperber eta Wilson (1986) komunikazio eredu inferentzialari buruz aritzen dira. Eredu honen aburuz, hartzaileek mezua hizlariaren intentzioetatik jasotzen dute, euren hitzetatik baino. Honek, batzuetan, arazoak sorrarazten ditu, batzuetan hartzaileak ondorio okerretara heltzen baitira, guztiz zuzenak ez diren premisak, testuingurutik hartu behar direnak, aztertzearen ondorioz.

Modeloak ezin du zehazki determinatu guztiz zuzenak ez diren premisetatik lortutako ondorio baten sendotasuna, baina argumentu hau bera, ebidentzia introspektibotzat har genezake. Izan ere, kontuan eduki behar da, Sperber eta Wilsonen ez dutela sistema logikoa deskribatzen, sistema kognitiboa baizik.


Hala ere, harira bueltatuz, *input* errelebantea modu askotara lor daiteke: aurretik genuen galdera bat erantzunez, gai konkretu batekiko jakintza lortuz, susmoak zuzenduz, etab. Sperber & Wilsonen (1986) arabera errelebantzia bi modutara neur daiteke, eragin kognitiboaren eta prozesamendu ahaleginaren arabera:

- 1- Beste faktore batzuek parte hartzen ez badute, geroz eta handiagoa denean *input* bat prozesatzean lortzen den eragin kognitibo positiboa, geroz eta handiagoa izango da *input* honen errelebantzia prozesatzen duenarentzat.
- 2- Beste faktore batzuek parte hartzen ez badute, geroz eta handiagoa denean *input* bat prozesatzeko egiten den ahalegina, geroz eta txikiagoa izango da *input* honen errelebantzia prozesatzen duenarentzat.

Errelebantzia alde batera utzita, Sperber eta Wilsonen teoria ulertu ahal izateko, beharrezkoa da (18) eta (19) adibideen bitartez aurkeztu den erabilera eta aipamenaren arteko desberdintasunaren ideia berreskuratzea. Banaketa hau oso garrantzitsua da gure autoreentzat, hauen ustez baieztapen ironiko guztiak aipamenak baitira. Konkretuki, *echoic mention* (ohiartzunezko aipamena) darabilte izendatzeko. Sperber & Wilsonen

ustez, baieztapen ironiko bat egiten dugun bakoitzean aipamen bat egiten ari gara, dela hitz egiten ari garen kidearena, dela arestian entzun dugunarena, dela eguneroko hizketan darabilzkigun errefracu, atsotitz eta esaldiena. Aipamen hau eginez, aipamena egiten dugunarekiko jarrera erakusten dugu, beti ere jarrera ezkorrak izanik: Iseka egiteko, haserrea adierazteko, barre egiteko, aipatutakoaren zentzugabetasuna azpimarratzeko, etab.

### 1. Irudia: Ahozko Komunikazioaren Aspektuak



Sperber, D. & Deirdre W. (1986). *Relevance: Communication and Cognition*. Oxford: Blackwell.

Eskema honetan Sperber eta Wilson-en arabera esaldiaren prozesamendu mentala egitean sor daitezkeen aukera ezberdinak azaltzen dira. Izan ere, esaldia hiztunaren interpretazioa da beti. Halaber, interpretazio hori bi motatakoa izan daiteke: (i.) deskripzioa ala (ii.) interpretazioa. Edonola ere, azpian benetako errepresentazioa ala desiratutako errepresentazioa egon daiteke. Honela, esaldia ulertzeko lau adar edo bide ezberdin egongo lirarteke:



- (a) Benetako errepresentazioaren interpretazioa
- (b) Desiratutako errepresentazioaren interpretazioa
- (c) Desiratutako egoeraren deskripzioa
- (d) Benetako egoeraren deskripzioa

Ironia ulertu ahal izateko, (a) eta (d)-n jarri behar dugu arreta, hauek baitira kontrajartzen direnak. Kontzeptu giltzarriak ‘egoeraren deskripzioa’ eta ‘errepresentazioaren interpretazioa’ dira eta hauek lehen aipatu ditugun ‘erabilera’ eta ‘aipamena’ kontzeptuen parekoak dira.

Sperber eta Wilson-en arabera, esaldia ironikoki ulertuko da (a) bidetik interpretatzen bada; esaldi bera ‘literalki’ ulertuko da (d) bidetik interpretatzen bada. Lehen ikusi dugun adibidea berriko hona ekartzen badugu:

(16) Oso ona atera zaizu

Esaldi honek benetako egoera deskribatzen badu, ‘literalki’ ulertuko da. Aldiz, biktimaren benetako pentsamenduaren interpretazioa bada, ironikoki ulertuko da. Kasu honetan esan daiteke hiztunak biktimaren pentsamendua aipatzen duela. Horregatik aipamenik egon ezean, ez genuke irakurketa ironikorik.

#### *4.2.1. ASPEKTU AHULAK*

Teoria hau kasu guztietan aplikaezina dirudi. Izan ere, argi dago kasu askotan beste pertsona bati egiten zaiola erreferentzia. Ikasle batek beste bati “Etixerako lanak egunero egin behar dira” tonu irriharrian esaten dionean, argi dago euren irakasleak esaten duen esaldi bat erabiltzen ari dela, irakaslea irriharri utzi nahian. Hala ere, imajina dezagun lagunekin afari bat ospatzen dugula eta, afaria bukatzerakoan, tabernetara hurbiltzen garenean, inor ez dugula topatzen kalean. Kasu horretan “Hau bai giroa!” esan genezake. Kasu honetan, hizlariak ez dio inori erreferentzia egiten, eta ez du inor irriharri uzteko intentziorik. Sperber eta Wilsonen, argumentu hau ezeztatuko lukete, afarian norbaitek giro ezinhobea izango luketela iragarri zuela esanez. Hala ere,

idatzi honi dagokionez, “Hau bai giroa!” komentarioak ez du beste pertsona batek esandakoaren beharrik bere kabuz zentzu ironikoa izan ahal izateko.

Bestalde, Sperber eta Wilsonen, beste teoria batzuek ez bezala, enfasi kontrastiboa<sup>1</sup> azal dezaketela uste duten arren, onartu egiten dute enfasi kontrastiboa ezberdin erabiltzen dela hizkuntzaren arabera eta euren teoria ez da ezaugarri hori azaltzeko gai. Bolingerrek (1989), Ingelesa eta Frantsesaren arteko kasua aipatzen du, enfasi kontrastiboa askeago erabiltzen baita Ingelesean. Frantsesean (21b) bezalako adibiderik topatzeko aukera bakarra, (20) bezalako esaldi baten oihartzuna izatea da. Hau da, Ingelesean (20) adibidea bere kabuz joan liteke; frantsesean, ordea, esaldian enfasi kontrastiboa erabili ahal izateko, aurretik esandako esaldiaren beharra du.

(20) YOU must do the washing up.

(21) a) *He*: Il faut que vous fassiez la vaisselle.

(Hark egin behar du garbiketa)

c) *She*: Non, il faut que VOUS fassiez la vaisselle.

(Ez, HARK egin behar du garbiketa)

### 4.3. CLARK & GERRIG

Gricek jada 1978an hurrena esan zuen: “To be ironical is, among other things, to pretend (as the etymology suggests), and while one wants the pretense to be recognized as such, to announce it as a pretense would spoil the effect” (Grice, 1978: 125).

Oinarri hau izanik, teoria hau 1984ean Clark eta Gerrigek garatu zuten, eta hurrena dio: Suposa dezagun S lehentasunezko hartzailea den A-rekin ari dela hizketan. Ironikoki ari denean, S A’ri hitz egiten ari den S’ dela ari da antzezten, Clark eta Gerrigek dioten bezala, S beste pertsona bat balitz bezala jokatzeko baitu, eta beraz, bere audientzia ere, ezta A, A’ baizik. A’k bere ezjakintasunean ez du antzeztea ulertuko, S

---

<sup>1</sup> Enfasi kontrastiboa: Hitz edo silaba bati bere azentuazio normalarekin konparatuz ezartzen zaion azentu ezberdina beste hitz edo silaba batekin kontrastatzeko edo honek atentziora dei dezan helburuarekin.

benetan ari zaiola pentsatuko baitu, baina A-k hau dena ikusi eta antzeztea ulertuko du: S'-ren zentzugabekeria, A'-ren ezjakintasuna, eta ondorioz S-ren jarrera S' eta A'-rekiko, eta S'-k zer esan duen.

Teoria hau hobeto uler dadin, adibide bati arreta jartzea komeni da, beraz, Clark eta Gerrigek bere artikuluan erabilitakoa berreskuratuko da:

(22) Gaur bai eguraldi ona!.

Esaldi hau, bere kabuz ironikoa ez dirudiena, esanahi ironikoarekin erabil daiteke. Demagun bi lagun elkarrekin hizketan ari direla eta, euria ari dela, batak besteari (22) esaten diola. Kasu honetan, hizlariak beste pertsona bat balitz bezala jokutzen du, esate baterako, telebistan eguraldiaren inguruan ibiltzen den kazetariren batena. Hori dela eta, A, hau da hizlaria, kazetaria balitz bezala, A', hitz egiten du. A-ren helburua adibide honetan, hartzaileak ironia uler dezan da. Izan ere, kazetaria, esaldi honetatik ironia ulertuko ez lukeen hartzailea eta mezu bera irrigarri uzten ari da. Izan ere, bi ideia berreskuratu litezke memento honetan. Alde batetik, Mueckek azaltzen duen bezala, ironia geruzatan dator, beraz, kontraesana ez da maila berean sortzen. Teoria honen aburuz komunikazioa “bikoizten” denez, kontraesana ez du zertan kaltegarria izan.

Adibidearen ostean, beharrezkoa da lehen aipatutako *echoic mention* terminoa berreskuratzea. Izan ere, bi teorietan hartzaileak ez du mezu literala ulertu behar, mezu ironikoa baizik, eta, horrez gain, bi teorien arabera ironia sortzen den kasuetan hizlaria antzeztzen ari da. Beraz, berebizikoa da azaltzea *echoic mention*en kasuetan, hizlaria beste pertsona batek egindako baieztapen bat antzeztzen ari dela, Pretentsio Teorian hizlariak hizketako ekintza egiten ari dela antzeztzen duen bitartean. Bigarren kasuan, hau da, Pretentsio Teorian, hizlariak irrigarri uzten du bai baieztapena egin duen pertsona, bai baieztapena onartu duten pertsonak ere.

Pretentsio Teoriak lehenago Sperber & Wilsonen nabarmendu zituzten ezaugarri askori azalpen argia ematen die:

- 1- Asimetria: Ironiagile batek lehenago esango “Hau eguraldi ona!” eguraldi txarra dagoenean alderantziz baino. Pretentsio teoriaren arabera, horrelakoak dira hain zuzen ere ironiagileek egiten duten antzerkia.
- 2- Biktima: Normalean ironiak biktimak ditu. Hau ere ederki moldatzen da teoria honetara, bi motatako biktimak baititu: Alde batetik zentzugabekeria esaten duen S’, eta bestetik honek esandakoa ulertzen ez duen A’.
- 3- Tonu ironikoa: Ironiak ahots tonu ezberdin bat duela esan ohi da. S’ren antzeztea egiten denean, S-k bere ahotsa aldatuko du, puztuz edo karikatuz, honekiko jarrera erakutsiz edo egoerak eskatzen duen tonua erabiliz.

#### *4.3.1. ASPEKTU AHULAK*

Alde batetik, Gerriganek (1984) dioen bezala, esan beharra dago, teoria honek ez dituela aipatutako teoriak azaltzen dituzten beste ironiaren aspektuak kontuan edukitzen. Hori dela eta, adibidez, ez du azaltzen ironia eta parodiaren arteko ezberdintasuna. Hau da, ironiagileak, bere hitz eta ahots tonua erabiltzen dituen bitartean, biktimaren hitzak edo pentsamenduak komunikatu nahian, parodiagilek, biktima bera dela antzezten du, biktimaren ahotsa, tonua, eta hitzak era dramatikoan erabiliz.

Bestetik, teoria honek mezua modu literalean ulertzea guztiz baztertzen du ulermen prozesutik.

Hala ere, teoria honi egin diezaiokegun kritika gogorrena hurrengo da, hizlariaren antzezpenak ez du ezer berririk eskaintzen ironiaren ezaugarri nabarmenatarikoari, hau da, ez dio inongo erreferentziarik egiten mezuaren benetako esanahia eta esandakoa elkarrekiko kontrakoak direlarik.

## 5. HAUSNARKETA

Lan honen helburu nagusia ironia deskribatzea zen. Hori dela eta, ironiaren ezaugarriak azaldu egin dira lehendabizi, fenomeno hau sakonago ulertuko litekeelakoan. Hala ere, argi dago gizartea etengabe aldatzen dela, hizkuntza ere aldatzen den moduan. Beraz, argi dago ironiaren fenomenoak ere aldatu egin dela historian zehar.

Aspektu hauek aztertu ostean, gaur egungo ironiaren mekanismo linguistikoak azaltzen dituzten hiru teoria desberdin aurkeztu dira. Esan beharra dago, lan honek ez duela ez bata ez bestea hobesten. Izan ere, teoria hauen aspektu ez hain positiboak buruz jardun da baita ere. Horrela izanda ere, bakoitzak baditu bere alderdi onak.

Ikerketa teorikoa egin ostean, ezinezkoa litzateke ondorioz ez ateratzea. Lehendabizi, esan beharra dago ironia unibertuala dela dirudiela. Izan ere, fenomeno hau hizkuntza ezberdinetan aurki daiteke, eta baita, memento historiko ezberdinetan ere. Lehen aipatu bezala, lanak autore ezberdinen iritziak jaso dituzenez, esan liteke ironia ahozko eta idatzizko hizkuntzan agertzen dela, eta, fenomeno honetaz hainbat autore ezberdin jabetu direla.

Hori horrela bada, zergatik gertatzen da hain zaila fenomenoak bere osotasunean deskribatzea? Lan honek ateratzen dituen ondorioen arabera, testuingurua izan liteke honen arrazoiak. Kasu askotan ez dago inongo aldaketa gramatikalik proposizio ez ironiko eta proposizio ironikoen artean. Bestalde, adibide ugari daude non ironiagileak entzulea eta bere burua ondo ezagutzen duten elementu bat erabiltzen duen, ironia egiteko. Esate baterako, lan honetan aipatu den hurrengo adibidea. Demagun, irakasle batek egunero esaten diela bere ikasleei etxerako lanak egin behar dituztela. Klasetik irteterakoan, ikasle batek besteari tonu irriarrian “Etxerako lanak egunero egin behar dira” esaten baldin badiu, argi dago entzuleak irakasleari egiten dion erreferentzia ulertuko duela espero duela. Baina, testuinguru hori ezagutzen ez duen pertsona batek esaldi hori entzuterakoan ez du erreferentzia ulertuko eta beraz, ez du mezua bere osotasunean ulertuko.

Baina, esan beharra dago, ironia egiten den kasu guztietan ez dela pertsona bat gaizki utzi nahi. Izan ere, zenbait autorek horrela esaten duten arren, idatzi honek ez du pentsatzen pertsona bati erreferentzia egin behar zaionik ironia egin ahal izateko.

Historiari berriro helduz, bi galdera garrantzitsu egin daitezke: Zer da aldatu dena? Eta zergatik? Hasteko pentsatzekoa da ironiak zuen kutsu “pedagogiko” hori galdu egin dela denborarekin. Arestian aipatu den bezala, adibidez Sokratesek bere ikasleei ironikoki galderak egiten zizkien berak jakingo balu ez bezala, baina benetan hau ikasleek pentsarazteko helburuarekin egiten zuen. Irakasteko modu hau beste metodologia modernogo batzuek ordezkatu da gaur egun, beraz, argi esan daiteke behintzat aldaketa bat egon dela, behintzat antzinako grekoekin konparatzen badugu. Eta konparaketa hau garrantzitsua dela esango nuke, gaur egungo europar kultura gehienek bertatik edan baitute eta baitugu.

Aldaketen arrazoiei dagokienez, ez dirudi nahita egindako transformazio bat izan denik. Itxuraz ironiaren eboluzio naturala izan da. Eta eboluzio hori kulturari estuki lotuta dagoelakoan nago.

Badirudi gizatalde edo zibilizazio bakoitzak ironia mota ezberdinak garatu izan dituela historian zehar, eta hau estuki lotuta joan dela bai garaiari eta baita mementoan bizitakoari ere. Beste modu batean esanda, ironia ezberdin erabiliko zuten erromatar konkistatzaile boteretsuek bortizki zapal dutako herri txikiekin konparatuta. Segur aski erromatarrek askoz ironia krudelagoa garatuko zuten, beraien izateko erari jarraiki, eta garaituek, aldiz, ez zituzten hilketen eta beraien egoeraren inguruan txisteak eta bromak egingo.

Hau ere beste puntu garrantzitsu bat dugu. Ironiak jarraitu duen eboluzioak badirudi umorea egiteko mekanismo bat izatera eraman duela. Eta hainbeste sartu da gure egunerokotasunean non etengabe erabiltzen dugun, askotan inkontzienteki eta konturatu gabe. Zergatik ordea horren erabilera naroa?

Ironiaren atzean ezkututzen den umorea, alde batetik, eta iseka, bestetik, dira giltzarriak. Ironiak duen abantaila da ia egoera guztietan erabili dezakegula, bai umore onean gaudenean, lagun artean, edo baita haserre edo triste gaudenean. Lehen egoerari buruz ez da beharrezkoa adibiderik jartzea, baina bigarrenetan, adibidez, demagun lana galdu eta lagun batek “eta orain langabezia kobratu behar al duzu?” galdetzen dizula; honi “ez, nahikoa aberastu naiz jada” erantzuten badiozu, begi bistakoa da ironikoki erantzuten diozula horren galdera zentzugabeari.

Agian horregatik darabilgu ironia hainbeste, egoera guztietara egokitzen den figura baita, ia une guztietan erabil baitaiteke. Horrez gain, guztiok berezko dugun adar jotzeko gogoia ere esanguratsua dela esan liteke. Eta euskaldunok, herri bezala, nahiko adarjotzaileak izan gara, historikoki hainbat eta hainbat bertsolari eta bestelako figura garrantzitsu izan baitugu zeinak arrazoi horregatik egin zirenak famatu: Fernando Amezketarra, Txirrita edo Lazkao Txiki, besteak beste.

Azkenik, hurrengo lan batek azter zezakeen aspektu bat aipatu behar dago. Ironia hizkuntzaz hizkuntza aldatu egiten da, historian zehar aldatu egin den bezala. Orduan, esan genezake kultura ezberdinetan ironia modu ezberdinean erabiltzen dela? Ala kultura ezberdinetan? Hau da, euskaldunok antzeko ironia erabiltzen al dugu? Edota hizkuntzak baldintzatzen du? Hizkuntza guztiak egokiak al dira ironia sortzeko? Galdera hauek erantzutea lan interesgarria izan litekeelakoan dago idatzi hau.

Argi dago hainbat eta hainbat faktore har ditzakegula kontuan, eta geroz eta gehiago aztertu ironia orduan eta zailagoa egiten dela honen ulermena eta deskribapena. Eta hau izan liteke ironiaren ironia.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Beowulf. <http://www.heorot.dk/beowulf-rede-text.html> web orrialdetik berreskuratua.
- Bolinger D. (1989). *Intonation and its Uses: Melody in Grammar and Discourse*. California: Standford University Press.
- Cruse, Alan (2011). *Meaning in Language. An introduction to Semantics and Pragmatics*. Oxford: Oxford University Press
- Herbert C. & Gerrig R. (1984). "On the Pretense Theory of Irony", *Journal of Experimental Psychology* 113: 121-126.
- Garmendia, J. (2006). "Zer esan ironiaz", *Gogoa VI-I*: 77-89.+
- Grice, H.P. (1975). "Logic and conversation". In P.Cole and J. Morgan (arg.), *Syntax and Semantics 3: Speech Acts*. New York: Academic Press.
- Hymes, Dell. (1974). *Foundations of Sociolinguistics: An Ethnographic Approach*. Philadelphia: University of Pennsylvania.
- Knox, D. (1989). *Ironia: Medieval and Reinassance Ideas on Irony*. New York: Columbia University.
- Long, M. (2010). *Derrida and a Theory of Irony: Parabasis and Parataxis*, Durham theses, Durham University. Available at Durham E-Theses Online: <http://etheses.dur.ac.uk/665/>
- Muecke, D.C. (1969). *The Compass of Irony*. Londres: Methuen.
- Muecke, D.C. (1970). *Irony and the Ironic*. Londres: Methuen.
- Ruíz, M<sup>a</sup>A. (2001). "Towards a Historical Synthesis of the Concept of Irony". *Odisea*. 1.zb. 101-120.
- Sperber, D. (1984). "Verbal Irony: Pretense or Echoic Mention?". *Journal of Experimental Psychology: General*. Vol. 113. N<sup>o</sup>1 130-136.
- Sperber, D. & Deirdre W. (1981). "Irony and the Use-Mention Distinction", P. Cole (arg.), *Radical Pragmatics*. New York Academic Press, 295-318
- Sperber, D. & Deirdre W. (1986). *Relevance: Communication and Cognition*. Oxford: Blackwell.
- Sperber, D. & Deirdre W. (1992). "On verbal irony". *Lingua* 87, 53-76.